

## Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

### BISITAK ETA IBILALDIAK

#### [Pasaporteak ¡Museatu! eta bidaiatu](#)

##### **Museoak eta bildumak** **2018/04/20 - 2018/10/20**

Bidaia bat prestatzea inoiz ez da hain erraza izan. Pasaporteak hiri eta herri berezietara txango motzak planifikatzea ahalbidetuko dizu eta arte garaikide, arte eder, arkeologia, etnografia eta pertsonaia bereziei buruzko museoetan esperientzia paregabeak bizitzeko aukera izango duzu. Anitzak eta kalitate onekoak diren bildumak eta testigantzak agertzen dituzten museo xarmangarriak. Eta hori guztia, Nafarroatik atera gabe.

Taldean edo familiarekin, bikotearekin edo bakarrik, hamahiru museo eta bilduma hauek zain dituzu haien bilduma eta jardueraz zurekin gozatzeko. Gainera, hiru baino gehiago bisitatzen badituzu, sariak lor ditzakezu.

Pasaporteak pertsonala eta/ edo familiarra da. Doakoa da eta hamahiru zentroetan eskuratu daiteke sarreran. Erakunde bakoitzaren zigilua bisita egindakoan eskuratuko da.

#### [Katedraleko klaustroaren lana](#)

##### **Iruñeko katedrala** **10.00etan, 11.00etan, 12.00etan,**

Bisitak doakoak dira, eta hiru ordu hauetan egiten dira: 10:00, 11:00 eta 12:00etan. Ordubeteko iraupena dute, gutxi gorabehera. 14 urtetik gorakoak izan behar dute bisitariak, eta mugikortasun-arazorik ez izan. Oinetako lau eta erosoak eraman beharko dituzte, obrako aldamiotik ibili beharko baitute.

### ERAKUSKETAK

#### [Macla, mamua, bismuto, vicario](#)

##### **Oteiza Museoak** **2018/07/27 - 2018/11/30**

Oteiza Museoaren produkzioa, Huarte Arte Garaikideko Zentroaren partaidetza. Lankideak: "la Caixa" Fundazioa, Nafarroako Kutxa Fundazioa, Eguesibarko Udala eta Caniche Argitaletxea.

Oteiza Museoak "Macla, mamua, bismuto, vicario" erakusketa proiektua aurkezten du. Oteizaren obrari buruzko erakusketa interbentzio hau Karlos Martínez B. eta Javier Arbizu artistek berriaz ondu dute Alzuzako zentrorako eta Hazitegia programako lehen interbentzioa izango da.

#### [José Velasco Hernández-en Argazkiak \(1897-1974\)](#)

##### **Nafarroako Errege Artxibo Nagusia** **2018/07/02 - 2018/08/31**

José Velasco Hernández-ek, argazkizalea eta Garrantzako maisua izandakoa, XX. mendeko lehen 50 urteetan egin zituen argazkien bilduma txikia da.

Argazki gehienek familia eta ohitura gaiak aurkezten dituzte eta honako ekintzak islatzen dituzte: herriko musika taldea, eskolako belaunaldi desberdinak edo bertako

familia zein pertsonai ospetsuak.

Argazki bilduma honen dohaintzaren bortzgarren urteurrena betetzen dela ospatzeko, erakusketa hau uztaila eta abuztua bitartean egongo da ikusgai Nafarroako Artxiboan. Jorge Velasco-ren 17 argazki berezi bilduko ditu eta tamaina handian eskainiko dira.

### **Pablo Sarasate-Alberto Huarte: adiskidetasun baten testigantzak.**

#### **Nafarroako Errege Artxibo Nagusia**

**2018/06/18 - 2018/09/14**

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak, Pablo Sarasateren eta Alberto Huarteren inguruko erakusketa zabaldu du, Huarte Solchaga familiak utzitako musika agiriak osatuta. Dokumentu horiek, belaunaldiz-belaunaldi babestuak izan dira familiak Iruñeako Kale Nagusian duen etxean, Huarte ikastetxearen egoitza izan zen horretan.

### **José Latova. Argazkigintza arkeologikoan 40 urtez**

#### **Nafarroako Museoa**

**2018/06/13 - 2018/09/23**

Irailaren 23ra arte egongo da ikusgai argazkilari honen erakusketa zabala, 100 bideo eta argazki osatutakoa. Proposamen honek, argazkigintza arkeologikoaren maisu handi hau omentzen du.

José Latovak berak hitzaldi bat eskainiko du gaur bertan, 19:30tan eta Nafarroako Museoa.

Esan bezala, erakusketak Latovaren lana zeharkatzen du, Kultura Ministerioko Arkeologia sailaren zuzendariordea izaten hasi zenetik, bertan argazkilari bezala aritu zen 1976 eta 1989 bitartean, gaur egun arte. Era berean, ezin ahaztu, Latova estatu mailako lan arkeologiko nagusietan aritu izan dela.

### **Arma isilak gerra lasaietarako**

#### **Oteiza Museoak**

**2018/06/01 - 2018/09/30**

Oteiza Museoak berreskuratu egin du Interpretazioak programa, Imanol Marrodan artistak Altzutzako zentroan egin duen "Arma isilak gerra lasaietarako" erakusketa-proiektuarekin.

Oteizaren obrarekiko topaketa-gune bat sortu nahi duen programako hamargarren interbentzioa da jada. Programa bera museoko bigarren solairuan garatzen da, erakusketa iraunkorrekiko solasean, eta Oteiza Museoak Eguesibarko Udalarekiko elkarlanean produzitu erakusketa-proiektu hau ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean garatuko da.

## **KONTZERTUAK**

### **Tximeleta**

#### **Kultur**

#### **Mendigorria. Plaza**

#### **Osteguna / 20.30etan**

Mejikanak, kalejirak, fandangoak edo eta folk doinuak trikitixa eta kitar elektrikoaz uztartuz; pop kantak, rock talde nagusien bertsiok euskaraz eta erdaraz.

### [Loreto Fernández Imaz](#)

**Organo Musika Nafarroan**

**San Migel eliza. Larraga**

**Osteguna / 19.30etan**

ZENBAIT mendetako ibilbidea egingen dugu organo-literaturan barrena, trantsizioko organo honekin, eta Hilarión Eslava Maisuari omenaldia egingen diogu.

### [Suakai on the Rocks](#)

**Kultur**

**Artaxoa. Quinta parkea**

**Ostirala / 20.00etan**

Selva Barónen ahotsa kontzertuaren indarguneetako bat da, beti biolinak, biolontxeloak, gitarra akustikoak, baxu elektrikoak eta bateriak lagunduta.

### [Smoking Stones: Tributo a The Rolling Stones](#)

**Kultur**

**Altsasu. Foruen plaza**

**Larunbata / 23.00etan**

Mundu osoko oroimen-bandarik hoberenetakotzat jotzen da eta arrakastaz betetako 12 urteren ondotik, bere ibilbideko unerik hoberenean dago.

Paseoa zaldiz Errotain Zalditegiarekin

11:00etatik 19:00etara / Ordu bat edo bi aukeran Errotain. Urdiaingo errota-etxea

Prezioa: 20€ ordubete ; 36€ bi ordu

Erreserbak: T. 687 42 48 39 / 626 74 91 49 errotain@gmail.com

### [Nafarroako Ganbera Abesbatza](#)

**Lizarrako Antzinako Musikaren Astea**

**Estella-Lizarra (Puyko Andre Maraiaren Basilika)**

**Larunbata / 20.15etan**

Nafarroako Ganbera Abesbatzako Michael Navarrus kapera errenazentista Michael Navarrus kapera errenazentistak omenaldia egiten dio izenean bertan Michael Navarrus Iruñeko musikagile eta kapera-maisu errenazentista-berantiar gailenari. Talde hori Nafarroako Ganbera Abesbatzaren barnean eratuta dago eta, batez ere, Iberiar penintsulako eta Hispanoamerikako Errenazimentuko maisuen musika-sorkuntza birsortzeko, interpretazio eta ahots-teknika zehatzean ikertzeko helburua du.

### [Harrien oihartzuna](#)

**Landarte**

**Artaxoa**

**Larunbata / 19.00etan**

Artaxoak eta Olatz Beobide artistak musika lan bat asmatu eta taularatuko dute, herriaren ondare arkeo- logikoari eta historiari buruzkoa.

Udako Tailerrak. Gertakizuna irailaren 1, 19etan

Arte eszenikoak eta musikalak: Olatz Beobide

### [Barroco Tout](#)

**Lizarrako Antzinako Musikaren Astea**

**Santa Klara Eliza Estella-Lizarra**

**Igandea / 20.15etan**

Muchachada Nui talde komikoaren “El cuadro barroco” esketxean ideia hartuta, musika barrokoko talde bat sortu eta Barroco-Tout (“barrokodena” frantsesez, hizkuntza horretan hitz egiten baitugu gure artean) izena jartzeko ideia zoroa izan genuen. 2013an, ideia hori errealitate bihurtu zen Europaren bihotzean, Bruselan. Hiri horretara Espainiatik eta Frantziatik iritsi ginen, musique ancienne ikasteko.

### [Tradizio ibiltaria](#)

**Landarte**

**Ego**

**Igandea /12.00etan**

Eugiko gazte jendea inplikatzeko duen proiektua. Broken Brothers Brass Band arituko da ideia honen eta haren entseguen garapenean gidari. Azken buruan herriko Arma Olan joaldi bat edo “second line” bat egingen da.

Abuztuaren 27tik irailaren 2ra. Aurkezpena: irailaren 2, 12etan

Musika. Kantua, Perkusioa eta haize-tresnak >Broken Brothers Brass Band

## **TAILERRAK**

### [Arte Gaztea programa](#)

**Huarte zentroa**

**2018/08/01 - 2018/08/31**

Hurrengo hilabete osoan zehar Aizpea de Atxa, Maitane Azparren, Irene Holguin eta Iosune Sarasate artista gazteak haien proiektuak garatzen izango ditugu Uharte Zentroan. Egoitza artistiko hauek Nafarroako Gazteriaren eta Kirolaren Institutuarekin elkarlanean sustatuak izan dira.

### [\(re\)nacer](#)

**Huarte zentroa**

**2018/08/01 - 2018/09/15**

Aloha Lorenzok eta Eli Esandiak (re)nacer proiektua garatuko dute Uharte Zentroan egiten ari diren egoitza artistikoan, proiektua, Arte gaztea ospitaletan deialdiaren bigarren edizioan hautatua izan zen. (re)nacer proiektuak muinera eta ingurura gerturatu nahi du, pertsona bakoitzaren barne eta kanpo bidaiak topatzen diren lekura. Jaio eta birjaio, bizitza kontzeptu gisa: barrura begiratzeko, baina kanpoko ikuspuntua sentituz. Egoitza amaitzean, lana ikusgai egongo da Nafarroako Ospitaleko B gunean (Bideko Ama).

### [Ilustrazio laborategia: GRRRR!](#)

**Huarte zentroa**

**Osteguna /11.00etan**

Orro amorratu bat da Alfredo Murillo, Cabeza de Artistak, eskaintzen duen lantegiaren izenburua, bertan, irudiaren balioaz eta sorkuntza testuinguruaz hausnartzea proposatzen digu 50×70 zentimetroko poster bat egitean.

### [Barnealdea](#)

**Landarte**

**Monteagudo**

**Larunbata / 20.00etan**

Monteagudoko jendeak lagun egingen dio Aser Longás eskultoreari Queiles ibaiaren

behatokian jartzeko eskultura bat egiten.  
Abuztua. Aurkezpena: irailaren 1, 20etan]  
Eskultura: Aser Longás

**Toisoiaren ebasketa, escape room-ean**  
**karlismoaren Museoan (Estella-Lizarra)**

**2018/05/18 - 2018/10/14**

Karlismoaren Museoak dei egiten dizue parte hartzera Toisoiaren ebasketa, escape room-ean. Museoen Nazioarteko Egun eta Gauaren karietara egingen da, 2018ko maiatzaren 18an, eta irekita egonen da 2018ko urriaren 10era arte.